

Bizikidetza

Errespetua eskolako ikasgai

Matematika, historia, euskara... Horiez gain, ezinbestekoa da haurrei ikastetxeetan errespetua edo elkartasuna bezalako balioak ere erakustea. Pil-pilean dagoen eztabaida da kompetentzia, eta eskola batzuk dagoeneko arlo emozionala lantzen duen Bizikidetza Planarekin ari dira jo eta ke. Horietako bat, aurtengo Kilometroak jaia antolatzeaz arduratuko den Irurako ikastola.

IURE ALTZIBAR

Argazkiak: ARGIA

“**BESTE GAUZA ASKO IKASTEA** garrantzitsua den bezala, arlo emozionala lantzeak ere badu bere garrantzia”, dio Marisa Alvarezek. Irurako ikastolako irakaslea da bera, eta zentro horretan egindako Bizikidetza Planean sorreratik aritu da. Iruran, ospatzear dagoen Kilometroak jaia izan da protagonista azken urtean, baina ikastolako kideek ez dute duela urte batzuk garatzen hasitako bizikidetza proiektua baztertu.

2004-2005 ikasturtean eskolako kideen arteko harremanak aztertu zituzten lehenengo aldiz. Hurrengo ikasturtean, 2005-2006an,

**Irurako ikastolan,
enpatia lantzen
—ikus koadroa—.**

Anoetako ikastolarekin elkarlanean Bizikidetza taldea sortu zuten. Orduz geroztik bi ikastolek batera garatu dute ikasleen artean errespetuzko giroa indartzea helburu duen proiektua. Aurreko ikasturtean 426 ikaslek hartu zuten parte egitasmo horretan, Anoetako ikastolako 286k eta Irurako 140k.

Bi ikastoletako azterketa burutu ondoren, argi ikusi zuten hiru eremu landu behar zituztela: irakasle eta familien arteko elkarlana, ikasleen arteko harremana, eta gelako enpatia-aren eta diziplina-aren arteko oreka.



Bizikidetza



Ezker-eskuin, Larraitx Agirrezabala eta Marisa Alvarez, Irurako ikastolako irakasleak.

Ondokoaren lekuan ordubetez

Bederatzi ikasle daude mahaiaren inguruan. Enpatia landu behar dute. Hori da hilabeteko gaia. Ordubetez horretaz ariko dira. Baina oraindik ez dakite zer den. Larraitx Agirrezabala dute tutore, eta hark azalduko die zer esan nahi duen enpatia hitzak. "Besteen lekuan jartzeko gaitasuna".

"Zer da zoriontasuna?" galdetu die irakasleak haurrei. "Pozik egotea", izan da lehen erantzunetako bat. Poztasuna zerk ematen dien galdetzean, ikasleetako bat erantzuten hasi da. Bi ahots batera entzun dira, baina bietako bat isildu egin da irakasleak hori ez dela Entzumen aktiboan ikasitakoa esan duenean. Lehena-gotik hizketan ari zen neskak jarraitu du: "Niri ama pozik ikusteak ematen dit poza". Ondokoarentzat azterketa gutxi izatea da zoriontasuna. Beste baten-tzat, jolastokian ahalik eta denbora gehien igarotzea. Erantzun bakoitza desberdina da.

Irakasleak denen artean zoriontasuna zer den ados-teko eskatu die. Hiztegia erabili dezakete. Umeek iritzi ezberdinak azaltzen jarraitzen dute. "Azkenean beraien beharrak entzuten bukatzen dugu; horretarako aukera polita dute. Beti beraiei ematen diegu hitza, egoera bakoitzean nola erantzungo luketen azal dezaten", argitu du Agirrezabalak.

"Zoriontasuna" izenburua duen kartulina handi bat hartu eta zerrenda bat egin dute. Bakoitzari zerk sortzen dion poza idatzi dute. Jasotako ideien bilduma horman jarriko dutela adostu dute. Bihar erabakiko dute non.

Agirrezabalak azken proposamen bat egin die. Jolastokira jaitxi eta trena direla irudikatuko dute. Bakoitza bagoi bat izango da, eta azkenak baino ezin-go du ikusi, gainontzekoak begiak itxita joango dira,itsuak bailiran. Azken bagoiak esango die nondik nora joan. Besteenganako konfiantza landu nahi da horrela. Haurrak korrika jaitxi dira jolastokira.

Eguneroko harremanetarako ikasgaiak

Talde barruan elkarrekin harremanean egotea ezinbestekoa izanik, Bizikidetza lan taldeko kideei beharrezkoa iruditu zitzaizen gizarte tre-beziak lantzea. Hori izan zen aurreko ikastur-tean ikasleek landutakoa, beti ere, adin ezber-dinetarako jardura desberdinak egokituz.

Bosgarren mailako ikasleek, esaterako, tre-be-zia oinarritzkoenak landu zituzten aurreko ikas-turtearen hasieran. Ingurukoak agurtzen, eske-rrak ematen, barkamena eta gauzak mesedez eskatzen, eta gainerakoei pasatzen uzten ikasi zuten, adibidez. Eta egindako ariketen eredu dira ikastolako hormak: "Utzi pasatzen" dio gelako ate aurrean dagoen triangelu batek. "Haurrek badakite goizean irakaslea heltzen denean pasa-tzen utzi behar diotela, ate ireki dezan", azaldu du Larraitx Agirrezabala tutoreak.

Gainera, ikasgelan landutakoa herrira zabal-du dute, dendetan liburuxkak banatuz. "Kalean ere badute horren berri eta ikasleek ikusi ahal izan dute ikasitakoa ez dagokiela beraiei bakarrik", azaldu du Agirrezabalak.

Oinarritzko trebeziak bereganatu ondoren, helburu zehatzagoak lortzeari ekin zion Irura eta Anoetako Bizikidetza taldeak. Horretarako Entzumen aktibo, Ni mezu eta Asertibitate irakaspenak eman zizkieten ikasleei. Lehenen-goari esker, besteek esandakoa entzuten eta bakoitzaren hizketarako txandak errespetatzen ikasi zuten. Ni mezuaren bitartez, gertaera zehatz baten aurrean norberak erabakitzearen beharraz aritu ziren, hau da, egin beharrekoak besteen gain ez uzteaz. Azkenik, Asertibitateari esker, kexak izateko eskubideaz, horiek azal-tzeko moduz, gustuko ez den zerbaiten aurrean ezetz esateaz, eskatzen jakiteaz eta norberaren sentimenduak azaltzean besteenak kontuan izateaz jardun ziren, besteak beste.

Adin bakoitzak bere eredua

Eskolako txikienentzat –Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako laugarren mailara artekoentzat– zaila da halako ariketak buru-tzea eta beraz, hitz egiten eta entzuten irakas-ten diete bereziki. "Gelan belarri eta aho handi bana dituzte. Arazo bat dutenean horietako batera hurbiltzen dira eta aukeratzen duten zentzumenaren arabera, entzun edo hitz egin-go dute", azaldu du Agirrezabalak. Hala, txiki-tatik lantzen dute entzuteko gaitasuna umee-kin, "entzuten, beraien arazoak azaltzen eta besteen lekuan jartzen jakin dezaten". Adosta-sun gune horien erabilera garatzea da ikasturte berri honetarako asmoetako bat.

Gizarte trebeziak lantzeak eta ikasleei entzuten irakasteak berez sortzen duten onu-raz gain, badute bestelako helburu bat: Lehen Hezkuntzako bosgarren mailatik aurrera eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bitarte-karritza martxan jartzea. Pertsonen artean sor

litezkeen arazoak konpon-
tzeko bidea da bitartekaritza.
“Demagun bi ikaslek arazo-
ren bat dutela eta konpondu
ezinik dabiltzala. Bitarteka-
riari laguntza eska diezaioke-
te eta hura saiaturiko da kon-
ponbideren bat aurkitzen”,
azaldu du Alvarezek.

“Bitartekaritza leku askotan ari da erabil-
tzen dagoeneko, arazoak dauden tokietan.
Gurean, ikastola txikia izanik, oraindik ez
dago arazo handirik, baina hobe da aurrez
prestatu eta ikasleak ohitzea”, argitu du
Alvarezek. “Gainera, ez da ikastolako jardue-
ra bakarrik, hemendik kanpo ere balio
baitu”, gaineratu du. Datorren ikasturtera
arte bitartekaritza martxan
jarriko ez bada ere, irakasleak
prestatzen ari dira dagoeneko.

Irakasleez gain, gurasoek ere
ikastetxeetan garatzen ari diren
ekintzak ezagutu beharko lituz-
ketela uste dute Anoeta eta Iru-
rako ikastolako Bizikidetza tal-
dekoek. Beraiek saiatu izan dira
gurasoentzako hitzaldiak antola-
tzen, baina erantzuna ez da nahi bezain ona
izan. “Zertan ari garen eta zertan lagun deza-
keten jakin behar dute”, diote.



Bizikidetza

Eusko Jaurlaritzak ere,
eskoletako indarkeriarekin
kezkaturata, elkarbizitzarako
planak garatzeko proposa-
mena egin die ikastetxeei.
Eredu bat zehaztu du
horretarako, baina ez du
inor behartzen hori jarrai-
tzera, are gehiago, argi azal-

tzen du ikastetxe bakoitzak bere baldintza
eta funtzionamenduaren araberrako plana
egin behar duela.

Baldintzen arabera plangintza ezberdinak
eginda ere helburu orokorretan bat etorri ohi
dira bizikidetza planak. Ikasleek elkarrekin
bizitzen ikastea; gatazka egoeretan elkarritzeta
eta negoziatziora jotzea; gauzak komunikatzen

jakitea; norberaren ideiak adiera-
zi eta besteenak entzutea; gaine-
rako pertsonen lekuan jartzeko
gai izatea; eta erabakiak hartzen
jakitea. Horiexek dira lortu nahi
dituzten helburuak. Hortaz, guz-
tiek desio dute txikienak indar-
keriarik gabeko eta errespetuzko
ingurunean haztea. Eta horretar-
ako lanean dihardute. ■

**Bosgarren mailako ikasleek
ingurukoak agurtzen, eskerrak
ematen, barkamena eta gauzak
mesedez eskatzen, eta gainerakoei
pasatzen uzten ikasi dute**

www.argia.com/bideoak

helbidean, erreportajearen bideoa.



**Herriaren Oinarriak
Euskaraz Eraikitzen**



Irurako Udala

San Migel Plaza 1

Telefona: (943) 69 13 33 • Faxe: (943) 69 33 41 euskara@irura.net

www.irura.net